

Oihenarten metrika

1. Mundu guztiak dakienez Oihenart euskal metrikaren tradizioan berriazale eta ohitura zaharren urratzaile agertu zitzaigun. Bera baino lehenagoko bertsoegileen («vulgares versificatores»¹ deitzen dituenen) bertsoak paratzeko tankera ez zuen gogoko eta bere garaiko erdal hizkuntzen —frantses, italiano eta gaztelaniaren— eta areago, bere garaiko baino aurreragoko —erdi aroko— latin hizkuntzaren metrikaren legeak eta arauak ezarri nahi izan zizkion euskal bertsoegintzari ere. Hau esatean ez gara iritzira ari: berak diosku asmo horrek eragin ziola bertsoak —neurritzak— ontzera. Eredu ziratekeen hizkuntza horien metrikak, ordea, ez zituen aizatu behar, eta ez zitzakeen aiza, betidaniko euskal metrikaren arrasto guztiak. Ez zen hori ere Oihenarten iritzia. Zein lege eta zein arau hartu, hortaz, hizkuntza horietatik? Zer dakarte Oihenarten iritziek, eta areago dena, Oihenarten neurritzek berri deritzakeguna eta zer dute zaharra eta betikoa dena?

2. Euskal metrikarekiko iritzia haren izkribuetan oso hitz gutxitan ditugu emanak, rimaz esaten dituenak alde batera uzten baditugu batipat. Gutxi horietan dioena gogoan hartu gabe, ordea, ezin dakioker inor Oihenarten metrikari ekin, bere olerkietan iritzi horiei zegozkien arauak eta erregelak —berak emanak eta berak erdi-asmatuak— betetzeko erdua eta modua agertu baizik ez baitzuen egin. Horrexegatik ez du ere bere burua poetatzat jo eta inork jo dezan nahi izan. Bertsoak nola egin behar diren ari zaigu, maisu gisa, irakasten. Hona zer dioen euskal neurritzek —hala deitzen ditu berak— bete behar omen dituzten kondizioei buruz (rimari dagozkionak baztertu egingo ditut oraingoz, ez baitute horiek zer ikusirik lan honetan agertu eta erabili nahi dudan gaiarekin): «... il y a fort peu de Vers qui soient reguliers; car... ils ne sont guere exacts pour les cesures, et ils n'observerent presque aucune Elision, ni synaerese, quoy que tant l'une que l'autre doivent estre estroitement gardées en cette Langue...»². Lafitte jaunak duela urte gutxi lehen aldiz argitara zuen Oihenarten beraren *L'Art Poétique Basque-n*, Mauleko poetak berriro gomendatzen dizkigu arau horiek, elisioa eta sineresia zer diren agertuz; halere liburuxka osoan barrena rimaz eta ahapal-

1 A. OIHENART, *Notitia vtriusque Vasconiae*, 2gn argitar., 73gn orr.

2 A. OIHENART, *O^{me} Gastaroa nevrthizetan*, "Au lecteur" deritzan hitzaurrean.

diez mintzo zaigu gehienbat³. *Notitia vtrivsqve Vasconiae*-k ere badu 1656an egin zen bigarren argitaraldian gai honi buruz zerbait, goian aldatu dugunaz gainera ezer berri gutxi baldin badu ere. «Male faciunt etiam qui elisionem et synaeresim negligunt...», dio⁴.

3. Oihenarten neurtitzak zenbat silabatakoak diren jakiteko eta jakinda gero ere berak bakoitza nola neurtzen zuen eta silabak nola kontatzen zituen, eta guk ere, haren arabera, harenak nola neurtu eta kontatu behar ditugun ikasteko, ez digu, beraz, beste argibiderik ematen damurik. Agitz gutxi, egia esan. Arrazoinez dio Mitxelena: «... uno no sabe muy bien cómo contaba Oihenart las sílabas: a mí al menos me resulta difícil llegar a una cuenta que concuerde siempre con la suya»⁵. Hori dela bide, ez du gaurdaino inork, dakigunez, Oihenarten neurtitzak nolakoak diren eta zenbat silaba dituzten argitu, ez eta aditzera eman ere zein eta nolako fonetika aldakuntzak gertatzen diren neurtitz bakoitzean, behar duten neurrira ekartzeko. Ni ere ez nintzatekeen, noski, lan honetan barrena abiatuko lehenik Etxepareren bertsoak neurtzen aritu eta horren ondoan Oihenartenek ardaila eta neke berezirik ez zutela konturatu ez banintz.

4. Aurrera gabe diodan Oihenarten goragoko hitzek argibiderik ematen baldin badigute, honako biok ematen dizkigutela soilik, eta horrenbestez poetarentzat ezin utzizkoak zirela aitortu beharrean gaudela eta, aldez aurretik pentsa daitekeenez, Oihenartek inola ere —besterik frogatzen ez bada— ezin urra zitzakeenak: hots, hitzaren azken vokaleari vokalez hasten den beste hitza badarraikio, bi vokale horiek elkarrekin urtu eta silaba bakarra osatuko dutela. Bigarrena: bertsoak erdian —edo erdi inguruan— bertsoa bi zatitan, bi hemistikiotan, ebakitzen duen etenik edo zesurarik baldin badu, eten hori zuzen gordeko duela, zuzen gordetze hori zertan datzan esaten ez badigu ere. Hutsegite hauexek egozten dizkie, hain zuzen, behin eta birritan bere aurreko poetei, Etxepare ere artean dela —gure ustez, oker⁶. Ezin pentsa ere dezakegu, beraz, Oihenartek neurtitzok «afin qu'il apparaisse, que la pratique de ces Regles n'est pas si mal aisée en notre Langue»⁷ paratu zituelarik, berak ere huts horiek berak egin zitzakeenik. Bi argibide horietaz gainera gure poetaren neurtitzak behar bezala neurtzeko eta silabak kontatzeko proposa-

3 A. OIHENART, *L'Art Poétique Basque*, 30-33 orr.

4 A. OIHENART, *Notitia vtrivsqve Vasconiae*, 2gn argitar., 73gn orr.

5 Koldo MICHELENA, "Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos", F. L. V., 8 (1971), 153 orr., 6gn oharra.

6 Oker, alegia, alde batetik, Etxepareren bertso guztiek behar adina silaba, ez gehixeago ez gutxixeago, baitituzte. Ez, ordea, bestetik eta Oihenarten ustez, Etxeparek ez baitituen beti haren lege-arauak bete elisio eta sineseri direlakoetan; zesuran ere elisioa ontzat ematen du eta hiruzpalau bider hala egiten, Oihenarten aginduz kontra.

7 A. OIHENART, *O^{en} Gastaroa nevrthizetan*, "Au lecteur" deritzan hitzaurrean.

OIHENARTEN METRIKA

tuko ditugun fonetika aldakuntzak, guztiak geure baitatik atereak ditugu; hobeki esan, Etxeparek erakutsi digun praktika eta jokabidetik.

5. Hona lehenik, aldakuntza guztiak herrestan eman baino lehen, Oihenartek olerki bakoitzean darabilen ahapaldi mota:

- I. (*Erranen duta?*): 9-8-9-8. Bai eta leloan ere.
- II. (*Margarita*): 4-4-7-4-4-7.
- III. (*Gaiiic, egunic*): 5-5-8-5-5-8. Ahapaldi beraz baliatzen da IVgarrean (*Susas berzeric*) ere.
- V. (*Nic estut ehor*): 10-9-10-9-10-9... Ahapaldiak ez dira luze laburrean berdinak. Lehenak 18 bertso ditu; bigarrenak, 4; hirugarrenak, 8; laugarrenak, 10; azkenak, 22. Baina beti hamar eta bederatzi silabatako bertsoak txandaka doaz. Bestetik, hamarrekoak etena du beti boskarren silabaren ondoren, behin ere huts egin gabe; ez, ordea, beti bederatzikoak, eta horrenbestez horrek ez du bere eskeman zesura edo etenik.
- VI. (*Ametz, al'egua*): 12-12-8-8. Hemen ere hamabikoak etena du beti 6garren silabaren ondoren.
- VII. (*Aspaldi neure*): 8-8-8-8-8-8.
- VIII. (*Sambat leihorra*): 9-9-12-12. Gezurra badirudi ere, hamabi silabatako bertsook ez dute beti —ez dute soilki, hortaz— zesurarik.
- IX. (*Berrizen ar'is*): 8-7-5-8-8-7-5-8. Ahapaldi berdina du XIgarrenak (*Nic hambatetan*) ere.
- X. (*Hambat nago*): 7-7-7-7. Era berean paratuak dira XIIgarren (*Aspaldian nabila*) eta XIIIgarren (*Bates nago*) olerkietako ahapaldiak ere.
- XIV. (*Negvan*): 8-8-7-8-8-7.
- XV. (*Ni surezen*): 9-8-9-8-8-8-8-8.
Ondoko olerkiek ez dute gainean numerorik; guk lehengoan segidakoak ipiniko dizkiegu, gero aipatuko ditugunean lan txikiago izan dezagun.
- (16) (*Nabis espegui*): 5-5-5-5.
- (17) *Escontidearen hil-kexua*: bederatzia silabatakoak ditu bertso guztiak. Lehen ahapaldia 10 bertsoetako da; beste guztiak —118— tarterik gabe daude jarriak.
- (18) *Hamarcuna edo Iaincoaren manüac*: zortzi silabatakoak ditu bertso guztiak. Lehenik 4 bertso ahapaldi gisa; gero beste 14 elkarren segidan.
- (19) *Elisaren manüac*: orobat, zortzi silabatakoak guztiak.

- (20) *Eguberri-coplac*: 8-4-7-8-4-7.
(21) *Nunc dimittis, etc. Simeonen canta*: 8-8-7-8-8-7.
(22) *Vexilla Regis, etc.*: 8-8-8-8-8-8-8.
(23) 1657ko facsímilek ez du beste olerkirik. Hurrengoak Txillardegik argitara zuen *Atsotitzak eta Neurtitzak* liburutik hartu ditu, dauden daudenean, hots, idazkera berrian ipiniak, lehenagokoak ez bezala. *Beste zenbait olerki*: I. 9-8-9-8-8-8. Ahapaldi berdinak ditu IIIgarrenak ere.

II. 8-7-8-7-8-7-8-7.

IV. 8-8-8-8.

V. 9-8-9-8.

- (24) *Zalgiz jaun...*: hamalaukoa da. Bertso bakoitzak hamabi silaba ditu, seigarren silabaren ondoan guztiek etena edo zesura dutelarik.
(25) *Arrain jaun...*: 8-8-8-8-8-8.
(26) *Jorralen koblak*: 7-7. Bi bertso baizik ez du.

6. *Fonetika aldakuntzak*. Hauek gabe ezin ekar daitezke bertsoak beren benetako neurritara eta hauek gogoan ditugula bai, berriz. Ez, ordea, hau edo hura bakarrik, edota bat edo bi ez beste guztiak, baizik den-denak, bat ere salbuetsi gabe. Hau dela eta, irakurlea jakinaren gainean jarri nahi dugu, guk hasieran bezala hark ere behatoparik egin ez dezan; Txillardegiren argitaraldiak zenbait huts ditu eta liburu horretan dauden gisa hiruzpalau bertsoak pototo egiten dute. Jo badezagu, ordea, 1657ko facsimilera ikusiko dugu horiek ere behar bezala neurtuak eta paratuak daudela. Oihenart maisu zen puntu honetan eta ez du behin ere kolpe huts edo pototo egiten. Fonetika aldakuntzak bi eratakoak dira: vokaleek elkar jotzean sorrerazten dituztenak eta kontsonante nahiz vokaleren bat hitzaren barnean galtzean gertatzen direnak.

I. VOKALEEN ELKAR JOA

A. Deklinabidean

a. *-e temakoak*:

sureagati (XV,72), 4⁸
semeari (21,13), 3

b. *-i temakoak*:

horigatic (II,49), 4
egueiqui (VII,31), 3

8 Kako artean ipintzen ditugun numeroek olerkia eta olerkiaren bertsoa adierazten dute; kakoetatik kanpo dagoenak, aldiz, aipatzen diren hitzek zenbat silabatan ahozkatu behar diren.

OIHENARTEN METRIKA

- | | |
|---|---|
| <p>iguskiarequi (XIII,39), 5
 beguiequila (21,6), 4
 biek (23, IV,50), 1
 guzietan (24,1), 3</p> | <p>Iaincoaren (20,34), 3
 Iaincoas (20,40), 2
 Iaincoari (20,70), 3
 Iainkoaz (23,V,35), 2</p> |
| <p>c. <i>-o temakoak:</i></p> <p>Iaincoaren (V,13), 3
 Iaincoagati (VII,39), 4
 gogoan (XII,42), 2
 gogoan (XIII,2), 2
 mocoetan (XIII,71), 3
 iaungoicoari (XIII,97), 4
 Iaincoagati (XIV, 25), 4
 ahoetan (XIV, 34), 3
 gogoetan (XIV,35), 3
 eguitecoen (17,41), 4</p> | <p>d. <i>-u temakoak:</i></p> <p>escüetara (XIII,22), 4
 suen (17,3), 1
 suen (17,5), 1
 escuetara (17,10), 4
 suen (17,11), 1
 suec (17,12), 1
 suen (17,76), 1
 suec (17,89), 1
 suen (17,118), 1</p> |

Temaren azken vokaleak eta atzizkiaren aurrenak elkar jotzen dute eta lehenbizikoa vokalerditu egiten da, ikusi batera dirudien baino silaba bat gutxiago gertatzen delarik.

B. Hitz barnean

- | | |
|--|---|
| <p>a. <i>-ia- > -ya-:</i></p> <p>guticiasu (II,98), 4⁹
 Grasiona (X,5), 3
 handiago (XIII,103), 3
 guehiago (XV,66), 3
 gehiago (23,I,4), 3
 uxtia (23,IV,103), 2
 gehiago (23,I,4), 3</p> | <p>guchien (22,50), 2
 ardietsi (23,III,23), 3
 gehienetan (24,4), 4</p> |
| <p>b. <i>-ie- > -ye-:</i></p> <p>bethiere (IV,35), 3
 betiereco (XV,5), 4
 esquierqui (17,17), 3
 guehienic (17,95), 3
 ardietsiric (20,114), 4
 iuhiequiric (22,10), 4</p> | <p>c. <i>-io- > -yo-:</i></p> <p>heriostatu (23,IV,38), 4</p> <p>d. <i>-ea- > -ya-:</i></p> <p>sureago (XV,68), 3
 Galileaco (20,20), 4</p> |
| <p>e. <i>-oa- > -wa-:</i></p> <p>Ioana (XIII,25), 2
 Ioana (17,24), 2
 Ioan' (17,27), 1
 Ioana (17,116), 2</p> | |

⁹ Ikus, ordea, *guticia* (20, 140), lau silaba dituelarik.

- | | |
|-------------------------|---------------------|
| Ioan' (17,116), 1 | g. -ue- > -we-: |
| Iaincoaisunic (18,3), 4 | ensüerri (II,34), 3 |
| f. -oe- > -we-: | dusuela (17,93), 3 |
| gogoerizen (IV, 54), 4 | dusuen (17,118), 2 |

Honako hauetan ere lehengoa bera gertatzen da: inork uste dezakeen baino silaba bat gutxiago dutela hitzek, elkar jotzen duten bi vokaleetarik lehena vokalerditzean. Beste horrenbeste gertatzen zaie *koainta* (III, 21), 2; *koeitac* (17, 72), 2 eta *israelarren* (21, 12), 4, hitzei ere.

C. Bi hitzen artean

1. Azken vokalearen vokalerditzea.

- | | |
|--------------------------------|-------------------------------|
| a. -i a-: | bici eta (VIII,24), 3 |
| surequi adiskidezeco (I,14), 8 | honqui eguite' (IX,22), 4 |
| beti aut (III,18), 2 | eci es (IX,23), 2 |
| naboussi alkatea (VIII,20), 6 | goraqui eransunen (IX,40), 6 |
| esi aspaldi (XIII,109), 4 | gupi es (X,9), 2 |
| bizi ahal (23,II,15), 3 | nahi estuna (XI,2), 4 |
| baizi anhitzetan (23,V,24), 5 | hori eguia (XI,5), 4 |
| bederatzi ahizpez (24,12), 6 | eci estüela (XII,11), 4 |
| | berri erruna (XII,40), 4 |
| b. -i e-: | gaisqui emana (XIII,26), 4 |
| besi ehor (I,4), 3 | chorhiqui eguina (XIII,57), 5 |
| norequi ere (I,17), 4 | erri et' (XIII,61), 2 |
| niri eguiteco (II,60), 5 | meresi ene (XV,36), 4 |
| hirequi espanis (III,3), 5 | suri eracuts (XV,52), 4 |
| hirequi espanis (III,4), 5 | asqui espada (XV,64), 4 |
| esi Erregue (III,12), 4 | hori eguiten (16,9), 4 |
| hunqui-eta (III,27), 3 | eri eziten (16,11), 4 |
| beti ed' (III,35), 2 | guti esagutu (17,4), 5 |
| nahi espanusu (V,5), 5 | bici erasitera (17,24), 6 |
| agueri elisan (V,17), 5 | alderdi espainis (17,34), 5 |
| suri erraiteco (V,25), 5 | ogui epaiten (17,84), 4 |
| esi esta (V,47), 3 | beti ehor (17,98), 4 |
| ainsiti ederric (V,49), 5 | esi estuquet (17,125), 4 |
| hori esconze (VI,18), 4 | idi es (18,18), 2 |
| hunqui eguitecoric (VII,30), 6 | gaisqui eguines (19,11), 4 |
| beci ehorc (VII,38), 3 | suri erraitera (20,42), 5 |
| gubernari eta (VIII,20), 5 | iagoiti enansuna (20,48), 6 |

OIHENARTEN METRIKA

- Iaincoari eskerren (20,70), 5
 berri ecartera (20,144), 5
 gaisqui eguines (22,48), 4
 gaizki eginak (23,II,35), 4
 ardietsi engoiti (23,III,23), 5
 hori erranik (23,IV,9), 4
 zurati erautsirik (23,IV,68), 6
 ni ekus (23,V,29), 2
- c. *-i o-*:
 esi ordu (VII,41), 3
 herri orori (IX,38), 4
 mihi osena (X,21), 4
 eci orai (XIII,27), 3
 niri obororic (17,121), 5
 lili orde (23,V,13), 3
- d. *-i u-*:
 gainti uzia (XIII,16), 4
 niri uko (23,III,25), 3
 iagoiti unha (23,V,1), 4
- e. *-o a-*:
 guero asquenic (II,103), 4
 suretaco aski (IV,14), 5
 edo anderauren (V,53), 5
 lepo' arrai (X,25), 3
 sango aratsu (XII,38), 4
 guero ahuz (XIII,41), 3
 ederreco adatsa (XIII,85), 6
 serurano alxatua (XIV,36), 7
 naiteeno akit (16,18), 5
 Iainco-axeter (17,107), 4
 visizeco anhez (18,10), 5
 seruco aita (20,2), 4
 sesano ainic (20,67), 4
 berzetraco amorioa (23,III,4), 8
 iaungoico aitaganic (20,166), 6
 orsto-adarrak (23,IV,31), 4
 hango atea (23,IV,57), 4
 edo arno (23,IV,63), 3
- f. *-o e-*:
 orano eia (II,21), 4
 gogo eguisu (II,96), 4
 exequiterago enis (V,30), 7
 oboro esina (X,20), 5
 besalaco ederraren (XI,24), 7
 goso ere (XII,15), 3
 orano es (17,6), 3
 egonago eta (17,32), 5
 embaldituco et' (17,36), 5
 buruspico edo (17,47), 5
 guero eguin (17,122), 3
 gero Ederragoa (23,III,2), 6
 gero ekarten (23,V,11), 4
 gero ere (23,V,15), 3
 ikusteko eginik (23,V,21), 6
- g. *-o i-*:
 edo ilhaguin (II,30), 4
 Iainco isanarequi (20,16), 6
 arsto-idiequi (20,78), 5
 oradrano iraitzi (23,II,29), 6
- h. *-o u-*:
 edo ukoti (20,137), 4
- i. *-u a-*:
 leku aguerira (III,41), 5
 spritu are (XIII,18), 3
 du alferizac (22,2), 4
 probetsu azkenean (23,V,17), 6
- j. *-u e-*:
 pistu et' (V,12), 2
 chahu estacurus (V,55), 5
 serbizu eguites (VI,6), 5
 alseiru es (IX,13), 3
 escu eta (X,33), 3
 prouexu edertarsuna (XI,13), 7
 dolu eguin (XI,27), 3
 baitu eme (XII,14), 3
 du et' (XII,19), 1

- du eta (XII,27), 2
 baderragu eguia (XIII,34), 6
 iguelsu esta (XIII,43), 4
 estu esagun (XIII,76), 4
 buru ederreco (XIII,85), 5
 du eguiten (XIV,15), 3
 esasu edo (XV,63), 4
 guretu et' (17,9), 3
 hurbiltu es (17,21), 3
 sentatu eta (17,38), 4
 pausu emaiten (17,63), 4
 ikertu eta (17,111), 4
 iudu erreguearen (20,112), 6
 iudu-erregues (20,125), 4
 aipu ensutearequi (20,126), 7
 ezpaduzu egin (23,I,17), 5
 derakuskegu elkarri (23,II,18), 7
 minzatu ezina (23,III,8), 5
- k. *-u i-*:
 nusu ireici (V,2), 4
- iakinsu isan (VII,41), 4
 maitatu isana (X,8), 5
 silharstatu iduriac (X, 36), 7
 enu itoiten (X,55), 4
 maitatu isateac (XI,17), 6
 enganatu isan (17,18), 5
 gogatu isan (20,1), 4
 zu ihesi (23,II,24), 3
 nuzu ikusiko (23,II,45), 5
- l. *-u o-*:
 estusu orhizeric (VII,26), 6
 herscailu ordari (IX,7), 5
 baitu oguena (XV,38), 4
 sahartu ondoan (17,39), 5
 dugu otses (20,118), 3
 securu ororen (22,36), 5
 ezazu ordu (23,III,24), 4
 lilitu ondoan (23,V,10), 5
 lilitu orstatu (23,V,19), 5

Ikus daitekeenez, maizenik bigarren hitzaren lehen vokalea *e-* denean gertatzen da aldakuntza: 94 bider; beste vokaleren bat deneko guztiak 62 baizik ez dira denera.

2. *Sinalefa eta elisio*

- a. *-a a-*:
 duta? Ahal (I,1), 3
- b. *-a e-*:
 eta ec'uru (II,81), 4
 Ioana ene (17,24), 3
 ninsatela eta (17,51), 5
- c. *-a i-*:
 nohela icussis (I,32), 5
 bera iduri (XIV,15), 4
 biga itut (16,28), 3
 epa itzazu (23,II,34), 4
- d. *-a o-*:
 nesca ororen (II,78), 4
- e. *-e a-*:
 sure artazes (II,16), 4
 luque? adarrac (VI,20), 4
 ere aguian (XIII,120), 4
- f. *-e e-*:
 iaikite-ezatean (VI,26), 6
 minsaze ederretaco (XIII, 17),
 batzarre egin (23,III,15), 4
 dioite elgarri (23,IV,5), 4

OIHENARTEN METRIKA

- | | |
|--|--|
| <p>g. <i>-e i-</i>:
esne issurcorri (XIII,56), 5</p> <p>h. <i>-e o-</i>:
ere orduko (23,IV,102), 4</p> | <p>i. <i>-e u-</i>:
ile urrestatu (23,II,9), 5</p> <p>j. <i>-i i-</i>:
iduri iguskiarequi (XIII,39), 7</p> |
|--|--|

Oihenartengan ez da sekula *-a u-*, *-o o-* eta *-u u-* agertzen. Hemen ere *-e* nahiz *e-* dutenak 13; gainerako guztiak 7.

D. Aditz jokoan

1. *-i-*, sarri dativo aurrekoa dena, baina bestelakoa ere izan daitekeena, beste vokaleren baten aurrean gerta badadi, maiz vokalerditu egiten da, ez beti. Hona noiz egiten den:

<p>niagosu (I,28), 3 siotsan (III,24), 2 diaducan (III,30), 3 diostala (VII,36), 3 eziakisu (VII,38), 4 niagon (XI,28), 2 estaquiála (19,9), 4 diosuna (20,45), 3</p>	<p>diotso (20,51), 2 siotsona (20,55), 3 sasquion (20,154), 2 bequie (21,15), 2 siostela (22,22), 3 dioite (23,IV,5), 2 zekion (23,IV,59), 2</p>
---	--

2. **edun* aditzaren *-u-ri* beste vokaleren bat darraikionean —eta beti *-en* edo *-ela* atzizkiarena izan ohi da—, *-u-* hori vokalerditu egiten da maiz. Hona non:

<p>enuel' (VIII,28), 2 estüela (XII,11), 3 nituen (XV,4), 2 saituen' (XV,28), 2 düenaren (XV,56), 3 nuen (17,13), 1</p>	<p>nuen (17,17), 1 bainuen (17,39), 2 nituel' (17,79), 2 luen (17,111), 1 baizuen (20,14), 2 situen (20,72), 2</p>
---	--

3. Beste edozein adizkiri ere, *-en* edo *-ela* erastea, atzizki horien aurreko vokalea maiz —ez beti— vokalerditu egiten zaio, edota aurreko vokale hori *-e* baldin bada, bi *ee* batu egiten dira maiz. Ikus:

<p>diela (II,15), 2 sintielacoz (V,62), 4 nuqueenaz (IX,20), 3</p>	<p>diroena (X,24), 3 nagoen (XII,45), 2 badaidiel' (XV,42), 3</p>
--	---

PATXI ALTUNA, S. J.

saquien (17,63), 2	sequien (20,124), 2
nangoenean (17,75), 4 ¹⁰	ziroen (23,IV,91), 2 ¹¹
datequiela (18,4), 4	zaitzekiela (23,IV,95), 4

4. *Joan* aditzak maiz eta *eroan*-ek behin -o- vokalerditu egiten du.
Hona:

Ioana (XIII,28), 2	ioan (20,141), 1
ioaiten (16,15), 2	daroate (20,162), 3
noa (16,19), 1	goaz (23,II,21), 1
ioan (17,51), 1	doazala (23,IV,9), 3
ioan (19,9), 1	joanez (23,IV,17), 2
ioan (20,75), 1	joanez (23,IV,17), 2
ioan (20,96), 1	joan (23,IV,95), 1

II. MUTUTZEA

Oihenartek ez ditu inoiz ere ez -r- eta ez *b-* edo *-b-* mutuerazten, Etxeparek zenbaitetan ohi duen bezala; -g-, ordea, bai, lau bider (?). Hona partateak:

badaguidasu (I,6), 4	baitaguidasu (I,34), 4
badaguidasu (I,8), 4	baitaguidasu (I,36), 4

Horretaz gainera behin *derautasue* (17,23) idatzi duena *drautasue* ahozka daiteke; ez da hala behar, ordea; aitzitik hobe deritzagu *derautasue* ebakitzeari, beste bitan ere -zue -zue ahozkatu behar baita. Ikus goian 17,93 eta 17,118.

7. Horra Oihenartek berak grafiaz —vokalea kendu eta horren ordez ' ipinirik— seinalatzen dituen aldakuntzez gainera, irakurleak bere alde-tik egin behar dituenak, bertsoak duten benetako neurrira bihurtzeko eta Oihenartek paratu zituenean irakurri zituen bezalaxe berak ere irakurtzeko eta ebakitzeko. Ustez aldakuntza guztiak bildu ditut, hutsen bat gorabehera. Aldakuntza horiei, halaz ere, zenbait ohar eta argibide zor zaie, berez mutu direlarik geure poetaren metrikaz ondoren batzu atera nahi baditugu.

a. Oihenartek ez ditu inoiz ere hitz baten azken vokalea eta hurrengoaren lehena sinalefaz edo elisioz elkartu gabe uzten. Lehen esan bezala, hutsegite hori (?) egotzi zien bere aurreko bertsoegileei eta berak ez du harri berean behin ere behaztopa egin. Areago, vokalez amaitzen eta vokalez hasten

10 Ikus, ordea, *nagoan* (II, 87), hiru silaba duelarik.

11 VII, 15 bertsoan, aldiz, hiato bortxatzearen -i- sartu du: *nirioienes*.

diren elkarren ondoko bi hitzak puntuz edota puntuaz gainera galde-zeinuz (?) berezirik egon eta ere, elkartu egiten ditu: ikus, I,1 (*duta? Ahal*); VI,20 (*luque? adarrac*). Ez, ordea, behin ere hitz batek azkenean vokale ordez diptongoa baldin badu: ikus beste askoren artean II,84, (*Erpai, ern'*); V,58, (*otoi vrricari*); VI,25, (*gau-egun*); XIII,21 (*doi esi*). Ez eta vokalea galdu eta Oihenartek ' zeinu honetaz eman digun hitzak zeinu horren aurrean vokalea duenean ere: ikus, besteak beste, I,11 (*negui' vda*); V,50 (*esne' vlsu*); VI,36 (*Bici' ene*); VII,4 (*buru' azamanic*); VII,19 (*Maite' otoi*); IX,22 (*eguite', engoiti*); XII,28 (*Salhaze' esta*); XIII,50 (*egui' es*), etab¹².

b. Esan bezala, Oihenartek ez ditu inoiz ere *h-* ez *-h-* mutuerazten. Hauxe esan nahi dugu: bertsoa behar bezalako neurrikoa gerta dadin, ez da inoiz ere berak idatzitako *h*-rik ezdeustzat jo beharrik; aitzitik, fonema bizia da eta bi silaba bereizten ditu beti, Etxepareengan inoiz edo behin gertatzen ez dena.

c. Oihenartentzat eman dizkigun olerkietako lerro bakoitza bertsoa da eta bertso bakoitzaren buruan eten osoa gertatzen da. Hots, buka daiteke bertso bat vokalez eta hurrena vokalez has; ez du haatik bata bestearekin inoiz elkartuko¹³.

d. Hasieran ikusi dugunez, Oihenartek elisioa eta sineresia beti bete behar direla irakasten du; ez du, ordea, beste legerik ezarri, rimaz kanpo, eta horrenbestez beste puntu guztietan aukera ematen dio poetari eta bere buruari. Esate baterako, deklinabidean eta hitz barnean eta aditz jokoan lehen seinlatu ditugun aldakuntzen ondoan bertso pilo handia aipa daiteke, horrelako aldakuntzarik gerta zitekeelarik, «de facto» gertatzen ez eta haiek gabe zuzen eta oso denik.

8. Azken puntu honetaz zerbait gehiago esan behar da, goiko horiek poetaren metrikaren bereizgarri orokorrak baitira eta, nornahik pentsa deza-keenez, bereizgarri horien kontrakorik ager baitaiteke aldiz behin, Oihenarten beraren edo inprimariaren hutsez. Har dezagun, esate baterako, I,30: *Ezen-thoske ehois ere*. Zortzi silaba behar ditu, beste ahapaldietako bigarren bertsoek erakusten digutenez. Lehenxeago, *a.* puntuan, esanari bagagozkio, ordea, *-e e-* elkartzen baditugu, Oihenartek beti elkartzen dituzenez, zazpi baizik ez ditu. *Ezen-thoske*-k dudarik gabe ' behar du, galdea baita eta galdeari dago-kion *-a* falta baitu; Oihenartek, agian, *-a* hori *ehois*-i lotzen zaiolarik, *-a* kendu eta ' ipini zuen, facsimilek ez baldin badu ere, eta falta duen ' horrek gale-razten du, goian esan bezala, bi *-e e-* horiek elkartzea.

12 Vokalea galdua izan arren —ba ote?— apostrofoaren aurreko eta hurrengo hitzaren lehenbiziko vokalea batu beharreko bertso bakarra X, 25 dateke. Ez ote dago, ordea, apostrofoa alferrik ipinia eta horrenbestez ez ote da *lepo'* ordez *lepo*?

13 *Eta* ordez *ta* behin bakarrik idatzi du, oker ez banago, gure poetak eta, hain zuzen, bertso baten hasieran, aurreko bertsoa vokalez bukatua delarik: 16, 36.

Hona beste bat: *Escu erri et' aburra* (XIII, 81). Egin daitezkeen bi loturak (-u e-; -i e-) egin badaitez, bertsoa zazpi silabatakoa izan beharrean seiretako da eta, biak egin gabe utziz gero, zortzitakoa. Zein egin eta zein ez? Ene ustez, lehena bai eta bigarrena ez, *aburra*-k erakusten digunez *erri* (*erbi*) horrek mugatua behar baitzukeen, eta horrenbestez -a falta baitu; *erri'* zor zaio, beraz, bertsoari, *erri'* eta *et'* elkartzea debekatzen duelarik. Hartara bertso hori ere, olerki horretako beste guztiak bezalaxe, zazpi silabatakoa bilakatzen da. Beste leku gehiagotan ere falta da ' : hara nola, II,18 (*Et onhestes*); IV,20 (*sur ikustes*), etab.

Atzekoz aurrera, beste bertso batean vokaleak idatzia egon behar duelarik, vokalearen ordez ' ematen zaigu. Bi arrazoigatik behar du, gainera, vokaleak idatzia egon: batetik, bertsoak nahi eta ez behar duen adina silaba izan dezan; bestetik, silaba bat sobera balu ere, ondoko hitza *h*-z hasten delarik inola ere ezin elidi daitekeelako Oihenarten azturaz. Ikus: *Vzi gabe hal' hiltzera* (17,92). Dagoen dagoenean, zortzi silaba baizik ez du eta bederatzi behar ditu. Zuzen eman digu Txillardegik bere liburuan: *utzi gabe hala hiltzera?*¹⁴.

Beste bertso batek ere merezi du hartaz bi hitz egin dezagun: VI,14, *Ederza, nescato onaren seguina*. Aski da olerki honen edozein ahapaldi neuritzea, bertso honek —ahapaldiko bigarrenak— 12 silaba behar dituela sinesteko. Bi -o o- horiek bat baditragu, ordea, hamaika baizik ez ditugu kontatuko. Zergatik ezin daitezke bi vokale horiek bat? Olerki beraren hamabi silabatako beste bertso guztiek agertzen digutenez, seigarren silabaren ondoren zesura dutelako eta horrenbestez, beste gabe, ezin elkar daitezkeelako. Hona, beraz, zer esan nahi zigun Oihenartek lan honen hasieran aipatu ditugun hitzetan («ils ne sont guere exacts pour les cesures»): bere ustez Etxeparek, besteak beste, ez du zesura delakoa zuzen erabiltzen, hor ere, gogoak ematen eta bertsoak agintzen dionean, elisioa egiten baitu hiruzpalau bider, Oihenart maisuaren iritzien eta arauen kontra.

H- ez -*h*- ez ditu, berriro esan, sekula mutuerazten. Hori dela bide, bi bertso ondorio honetara garamatzate: Oihenartentzat «hi» lagunari dagozkion adizkiek ez dute hasieran *h*-rik, eta hori ez, noski, bi bertso horietan *h*-rik gabe idatziak daudelako bakarrik, baizik eta adizkiek hasieran duten vokalea eta aurreko hitzaren azkena urtu eta batu egin direlako. Ikus III,18: *Hi beti, beti, aut gogoan*: bertso hau zortzi silabatakoa izango bada, eta hala behar du izan, *betyaut* irakurri behar. Inork esan dezake bestela ere irakur daitekeela bertso hori: hots, *gogoan*, beste gehiagotan bezala, bi silabatako eginik: *gogwan* (ikus goiko fonetika aldakuntzen zerrendak), *betyaut* ahozkatu gabe. Ezin onar dezakegu, ordea, iritzi hori, *gogoan*-en hoskidea ahapal-

14 J. L. TXILLARDEGI, *Atsotizak eta neurtitzak. Oihenarte (1592-1675)*: 192 orr.

dian *erhogoan*, lau silabatakoa, baita. Oihenartentzat, hortaz, *aut* da eta ez *haut*. Ikus ere beste bertso hau: IX,1, *Berrizen ar' is*, *CHVRIA*. Hemen, gainera, Oihenartek berak ematen digu bertsoa, nolazpait esateko, berak irakurria, *ari*-ri azken vokalea kendu eta horren ordeaz ' ezarria baitago.

9. Bi hitzen arteko vokaleen elkar joan izan ezik, beste fonetika aldakuntza guztietan —sineresi eta elisioz gainerakoetan, alegia— egiteko nahiz ez egiteko, hartzeko nahiz arbuiatzeko, esku osoa du poetak, berak eta bestek, Oihenarten beraren jokabideari sinesterik ematen baldin badiogu bederen. Alde honetatik Oihenarten eta Etxepareren artean ez da inolako alderik. Hau ez du Oihenartek inon aitortzen, baina aitortenak gorabehera hor dago agerian haren iharduna eta jokaera. Honenbestez Oihenart zenbaitek uste baino —eta berak uste baino?— lotuago dagokio euskal tradizioari eta honen aldean ezer gutxi da hark euskal metrikara ekarri uste duen berritzea eta aldatzea. Rima, berriro esan, utzi dezagun alde batera, bai eta «lotura fenomeno» direlakoak ere, zangalatrauak eta abar, horietan bere aurreko ohiturak eta azturak erabat irauli baitzituen. Dozenaka aipa daitezke goiko aldakuntza haiek zertu gabe dituzten bertso exenploak eta, guztiak ezinik, multzo bat aldatuko dut honera beste guztien sendogarri gisa.

Has gaitezen, lehengo ordenari jarraituaz, deklinabidetik, baina aurrera gabe ohar gaitezen puntu batez: gure poeta mugagabeaz txitian-pitian baliaitzen da eta horrenbestez ez dira pentsa daitekeen adina deklinabidean elkartu gabe, vokalerditu gabe, uzten dituen bi vokaleetako lehenak. Ikus halere goiko *biek* (*byek*) haren ondoan bi silabatako besteok: *Biec* (I,16); *biac* (V,23); *biac* (X,33); *biek* (23,II,19). Era berean, hango *gogoan* (*gogwan*) haien parean *gogoa* (XV,15; 17,28; 23,II,6); *gogoan* (XV,52; 22,44), azken bostok hiru silabatakoak. Orobat, hango bi *escüetara* (*eskyetara*) eta *escuetara* (*eskwetara*) haien kontra *escuari* (V, 26), lau silabatakoa, eta *escua* (XII,39), hirutakoa. Han *iaungoicwari* eta V,46, *iaungoicoas*, lau silabatakoa. Han *guzyetan* eta IX,2 *gusies*, hirutakoa. Han *begwyekila*, lauretakoa, eta IX,3 *beguies*, hirutakoa. Eta horiek bezala beste asko, goiko zerrendetan hitz berak agertzen ez badira ere: *hara nola*, *bidean* (I,22), *harria* (I,26), *gaisquias* (II,39), *ordüa* (II,68), etab., guztiok hiru silabatakoak.

Hitz barnean sineresirik gabe, lehen sineresi zutelarik bildu ditugunen ondoan, hona bakar batzu: *guehien* (20,107); *gehiago* (23,V,23); *gehiago* (24,6). Baita *grasias* ere (X,6), hango *Grasyana*-ren kontra eta haren hurrengo bertsoan, urrunago gabe. Era berean *lehiatu* (V,24), *kambiatu* (XIII,63) eta *distiatu* (22,27), hirurak lau silabatakoak.

Aditz jokora bagatoz —bi hitzen artekoek ez baitute salbuespenik—, hona zenbait adibide lehen ikusi ditugun fonetika aldakuntzekin bat ez datozenak: 1. *-i-* vokale aurrean egonik ere ez da vokalerditu honako hauetan:

sindiaurisan (V,18); *sequion* (20,81); *seguion* (20,84); *sariola* (22,15); *dioite* (23,IV,26). 2. **edun*-en -u- vokale betea da honako hauetan: *nuen* (VI,22); *nüenean* (VI,23); *düen* (X,50); *nüen* (VIII,7); *düelaric* (XII,17); *düela* (XIII,76); *düen* (XIII,91); *gaitualacos* (22,55). Zer esanik ez, Oihenartek Etxeparek bezalaxe badakiela, bertsoak eskatzen dionean, *ditut* formaren ordez *itut* (16,28), *tut* (17,7) eta *tuzula* (XIV,30) erabiltzen. 3. -en atzikiaren aurreko vokalea maiz uzten du vokalerditu gabe, edota bi *e* gertatzean batu gabe, bi bezala kontatuz: *sirateen* (16,23); *naiteen* (16,21); *naiteeno* (16,18); *laiteenes* (VII,18); *siteen* (II,69); **saudeen** (II,72). 4. *Joan* eta *eroan*-i bagagozkie, hona *soas* (II,46) eta *daroa* (20,99), lehena bi silabatakoa eta bigarrena hirutakoa, goikoen kontra.

Kontsonanteen mututzea dela eta, orain baino lehen esan dugu -h eta -b eta -r- ez dituela Oihenartek inoiz ere mutuerazten; bai, ordea, lautan -g-. Eta *derautasue* idatzi badu ere, hori *drautasue* irakur daitekeela, berak beste batean *draucat* (X,45) idatzi duen bezalaxe. Besteotan, ordea, -e- benetako vokalea da: *derautasu* (II,27), *derauzudanean* (IV,48), *baderaucat* (VII,7), *baderauca* (20,22). Egia esateko, ordea, aldakuntza hori ez da ezinbesteko; horren ordez beste bat egin daiteke eta hobe deritzat beste honi neronek ere. Hots, *derautasue* irakur daiteke, beste bitan ere «nork» izenordeari dagokion -zue atzikia silaba bakarreko bilakatzen baita: ikus 17,93 eta 17,118.

10. Artikulu honetarako 1657ko argitaraldiaren facsimile erabili dut nik esku artean. Txillardegiren *Atsotitzak eta neurtitzak. Oihenarte* (1592-1675), *Irakur-sail*-ek 1971an argitaratuaz, balia dadinak izan beza gogoan liburuxka honek hutsegite batzu dituela eta hor dauden daudenean bertso batzu potodunak direla. Hara nola: VIII,15, *dutenean* dakar facsimilek, eta ez *dutenen*; hartara hamabi silaba osatzen dira. 17,10: bertsoak honela dio: *cobla honsalen escuetara* eta ez *kobla onzale eskuetara*; honako honetan -a o- eta -e e- batuz gero zortzi silabatako gertatzen da, bederatzitakoa beharrez; Oihenarten neurtitz jatorrean, aldiz, ez da vokalaren elkar jorik eta horretaz gainera *eskwetara* irakurri behar da, esan bezala. 22,47: *gaizkiler* dio Txillardegirenak eta *Gaiskiguiler* Oihenartenak, hartara zortzi silaba osatzen dituela bertsoak. II,101: *potegitera* ordez *Pot-guitera*, lau silabatakoa, dugu textu jatorrean. XIII,103: *Handiago banins eci* behar du eta ez *Handiago ezi baninz*, sinalefa txuliatu eta zazpi silaba izan ditzan. Beste hutsik ere badu, baina silaben konturako ez dute zer ikusirik besteek.

Ezin nezake hemen, ordea, uxatu gabe utzi Txillardegik *gau* dela eta agertzen duen duda. Honela dio: «('gäuic = gauik. Usuago da 'gaurik' forma. Harrigarria batzutan Oihenarte-k 'gau' hitzaz erabiltzen duen deklinazioa: gauz, gauik, gauan»¹⁵. Diodan aurrenik olerkietan ez dudala *gauz* formarik

15 Liburuxka berean: 137gn orr.

aurkitu, *gauza*-ren ordezkoa izan ezik. Bigarren: Etxeparek *othoyc* dio (I,288) eta Lafonek dioenez, hitz horrek dagoen bertsoan hiru silaba ditu, ez bi «*othoy* forme donc son partitif comme les thèmes consonnantiques»¹⁶. Oihenartek formok darabiltza, bakarren bat itzuri ez baldin bazait, olerkietan: *gaiian* (II,108); *gauan* (23,IV,1); *gaiias* (V,31 eta 16,2); *gaiiic* (III,1); *gaues* (20,77). *Gaua* ere bai, baina honek ez digu trabarik egiten ez laguntzarik ematen. Esan dezagun, gainera, *gau-egun* (VI,25), *gau et' egun* (X,3 eta 23,III,14) eta *gau' et' eguna* (20,72) agertzen direnoro, *gau*-ren eta hurrengo vokalearen artean ez dela behin ere sinalefarik gertatzen. Kontsonante da, beraz. Zergatik, hortaz, deklinabidean halako forma bitxiak? Zergatik alde batetik *gaiian* eta *gauan* (ez *gaean!*), *-au* vokale balitz bezala, eta bestetik *gaiiic* (ez *gauric!*) eta *gaues* (ez *gauz!*), *-au* kontsonanteen pareko eginik, den bezala? Agerian dago *gauric* idatz zezakeela, *gaiiic* ordeztu, bertsoa batere bortxatu gabe, *gaiiic* eta *gauric* biak baitira bi silabatako. Eta halaz ere *gaiiic* idatzi du. *Gau*, hortaz, kontsonantez bukatua da Oihenartentzat. Aitzitik beste hiruretan poetak ez zuen aukerarik, *gaean*-ek eta *gauz*-ek beren ordezkoei baino silaba bat gehiago lehenak eta bat gutxiago bigarrenak baitzuten, eta horrenbestez bertsoa luzeegia edota laburregia bihurtuko baitzuket. Honek lehen esana garbiago azaltzen digu: Maulekoak ere badaki hala beharrez poetei zor zaizkien baimenez baliatzen beste edozein poetak, Etxeparek eta bestek, bezalaxe.

11. Puntu guztiotan, beraz, Oihenartek deus berri gutxi ekarri du euskal bertso gintzara: elisio («se fait... en mangeant ou faisant perdre le son de l'Une des Uoyelles qui se rencontrent entre deux mots... comme en ces deux mots, *Entre Eux*») ¹⁷ eta sineresia («se forme lors qu'en la rencontre de telles Uoyelles. La dernière du mot précédant se joint tellement avec la première du mot subsequent, en forme de diphtongue, que Les deux Ensemble ne font qu'Une syllabe») ¹⁸ beti egin behar dela eta kito. Lehenagoko poeten ohitura ez zen horrelakoa eta geroagoko herri tradizioa ere ez: elisioa nahiz sineresia gogoak eman edo bertsoak eskatu izan dienean egin izan dute eta ez dienean, ez. Bestalde Oihenartek sineresia deritzanari egungo egunean sinalefa deritza komunzkiro eta gaur mundu guztiak sineresia (hots, bi vokaleren hitz barneko elkar joa) deritzana ez du Oihenartek berak, ikusi dugunez, beti betetzen, ez eta gutxiago ere.

Oihenarten berrikuntzarik handienak beste hiru puntutan dautza: riman, zangalatrauetan eta hitz andanak zatitzean. Rima aberatsa nahi du eta hala dute ere haren neurtitzek: gutxienez silaba eta erdi hokide gertatzen direlarik

16 R. LAFON, "La langue de Bernard Dechepare", BRSVAP, VII (1951), 318gn orr.

17 A. OIHENART, *L'Art Poétique Basque*, 31gn orr.

18 Orrialde horretan bertan.

eta ez azkena soilik, Etxeparek egiten duen bezala. Zangalatrau noiznahi egiten du: lehen exenploa bakarra aipatuko dut milaren artean: *hitzera / Nobela*, bi hitzak bi bertsoetan bakandurik (I,31-32). Hitz andanak, azkenik, ez ditu haintzakotzat hartzen, edozein aldetatik zatitzen eta erdibitzen baizik; adibideak piloka eman daitezke, baina haren bertsoetan aurkitzen den arloteenetako bat aipatuko dut soilik: II,28-30. *Sembait bezain / edo ilhaguin besain / sarpasu banins / behar lukeena* —hala baita gaur eta hala baitzen, dudarik gabe, Oihenarten garaian ere hizketako hurrenkera eta horiek baitira perpaus horren hitz andanak—, Oihenartek urraturik, puskaturik eta elkarrekin nahasturik honela ematen dizkigu:

Banins besain
Sembait bezain
Edo ilhaguin sarpasu.

Ez da hori, haatik, Etxepareren jokaera, ez eta harez gero bertsoak —neurtitzak, isiltzen naiz —paratu dituztenena ere. Dena den, aski argi gelditu delakoan nago Oihenartek euskal metrikara zenbait gauza berri ekarri bazuen ere, ez zuela tradizioz heldu zitzaion eta herri hizkeratik edoski zuen gutzia erdeinatu eta irauli: ez eta hurrik eman ere¹⁹.

Patxi ALTUNA, S. J.

19 Artikulu hau aspaldixkoa delarik eta neroni geroztik gehixeago ikasia, bizpahiru puntu erantsi nahi diet hor esanei. 1. Oihenarten (*Erranen duta?*) lehen olerkiaren ahapal-dietako bertsoek 9-8-9-8 silaba dituzte, esan bezala; baina ez da gauza ageria, esanak esan, leloarenek ere beste horrenbeste dituztenik; apika 9-9-9-9, -g- mututzen ez dela; kontsonante hori ez baita bestetan mututzen; -r- eta h- nahiz -h- mututzen ez direlarik, gainera, ez dirudi egiantzeko -g- mututzea. 2. Oihenartek “lotura fenomeno” eta zangalatrauetan “bere aurreko ohiturak eta azturak erabat irauli” zituela eta “lehenagoko poeten ohitura horrelakoa” ez zela, aldez egia da, noski, aldez ez, ordea, geroztik ikasi dudanez. Izan zuen bera baino lehen ausartagorik eta urrunago joanik, Ziburuko Etcheberri, beste batean agertuko dudanez. 3. Hemen, esan bezala, ez gara rima edo puntuaz aritu; argitara berria dut *Mundaiz* aldizkarian beste artikulu bat, Oihenartek puntuari eta hitzen azentuari buruz dioskunaz eta bere olerkiek horietaz erakusten digutenaz.